IKAZTOBIAK (TXONDORRAK)

En épocas pasadas, especialmente cuando las ferreAntzinako garaietan, bereziki burdinolek ikatz kopuru handiak behar zituztenean, hura basoek hornitzen zuten egurretik ateratzen zen.

Ikazkinek egurra ateratzen zuten lekutik gertu zegoen toki bat aukeratu eta ahalik eta lauen zen toki bat bilatzen zuten. Ondoren azken toki hura nibelatzen zuten plataformaren antzeko bat sortuz. Plataforma horiek dira gaur egunera arte mantendu direnak. Aire argazki baten edo ortoargazki baten bidez ikus daitezke basoak azalera estaltzen duenean, adierazitako adibidearen basoaren kasuan bezala, Aramaioko udal mugartean, Ibarrako hiri guneko mendebaldean kokatuta.


LIDAR hegaldietatik eratorritako Itzalen Mapan, geoEuskadi bisorearen barruan, estaldura begetalpean erregistratutako informazioa aurkitu daiteke.

Ikaztobiak (“txondorrak”) eratzeko, lehendabizi egur zati handiak kono moduan pilatzen ziren, eta horien gainean, txikiagoak ziren beste batzuk ipintzen zituzten. Erdialdean tximiniaren antzeko bat uzten zen. Multzo osoa, oro har, 1,70 metro altuerakoa, lurrez eta goroldioz estaltzen zen.



Txondor baten berreraikuntza. Ezkerraldeko sektorean, lurrez estali gabe, ikus daiteke lodiagoa den egurra estaltzen duen egur mehearen antolaketa. Eskailera erabiltzen zen ikazkina tiro lanak egiten zituen tximinia kokatua zegoen goi aldera igo ahal izateko.

Ikaztobia osatu ondoren multzoari sua ematen zitzaion, baina hura mantso-mantso erre egiten zen, aireari ez zitzaiolako tximiniatik sartzen uzten, eta ondorioz, egurra ikatz bilakatzen zen. Prozesua amaitu ostean, itzaltzen uzten zen tximinia estaliz eta egun batzuk ondoren, ikatza ateratzen zen hura saltzeko.



MDT LIDAR 2012 Itzalak. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 530129.6242 Y: 4770122.3298 Z: 770 m (beheko gezia). Argi ikusten dira laserrak Lurraldeko Eredu Digitalean aurkitutako plataforma zirkular txikiak, horiek ikusi ahal izateko itzalak erabiltzeari esker, baita basopean ere. Adibide moduan, Aramaioko iparraldeko baso sektore honetan dozenaka ikus daitezkeenetatik hiru adierazi dira, Ibarrako ipar mendebaldetik 6 kilometrora kokatuta, alegia; bere hirigunerik garrantzitsuena.